

Zinegotzi ahaldunaren eta izendapena eskumenak

Alkateak berariazko eskuordetza egiten badu, zinegotziek ordezkotzaz egin daitezkeen ahalmen guztiak egingo dituzte, Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea kontuan izanda. Beraz, Alkatetzaren Ebazpen bidez izendatzen dira Zinegotzi Ahaldunak, lansail bati dagozkion alorreko eskuduntzak burutzeko Udal Erregelamendu Organikoan lansail horretarako definituriko eskumenen eremuan.

Alkateak eskuordetutako eskumenak

- Dagokion Batzorde Informatzailearen deialdia egitea eta buru izatea.
- Udala ordezkatzera bere jarduera alorrean.
- Lansailari dagozkion gaien inguruko hitzarmenak, agiriak eta polizak sinatzea.
- Lansailaren egituraketa eta antolaketa proposamena egitea Alkateari edo Langileria, Antolaketa eta Barne Erregimeneko zinegotzi delegatuari.
- Bere ordezkariaren eremuaren barne, ordenantzak, erregelamenduak eta udal akordioak argitaratu, bete eta bete daitezzen agintzea.
- Lansailari atxikitako edo gerora atxiki dakizkiokeen obrak eta udal zerbitzuak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.
- Eskuordeturiko alorrari adskribaturiko pertsonal ororen zuzeneko buruzagitza egitea.
- 18.000,00 euro baino txikiagoak diren gastuak baimentzea, beti ere kontuhartzaitzako eredu normalizatuaren arabera, eta obrak, zerbitzuak, hornidurak, aholkularitza eta laguntza zerbitzuak kontratatzeke udal aurrekontuaren arabera onartutako kredituen barne. Nolanahi ere gastua administrazio onaren printzipioari jarraiki kudeatu beharko da eta, ondorioz eta ahal den guztietan, hiru eskaintza eskatu beharko dira proposatzen den gastua 6.000,00 eurotik gorakoa den kasuetan, eta beti ere material suntsikorren hornidurarako aurrekontua gauzatzeko udal Arauan aurreikusten denaren kalterik gabe.
Proposatutako gastuaren zenbatekoa 6.000,00 eurotara iristen ez den kasuetan, kontuhartzaitzako eredu normalizatuaren arabera izapidatuko da eta ez da beharrezkoa izango gastua onartzeko alde aurreko ebazpenik aurrekontua gauzatzeko udal arauari jarraiki egiten denean.
- Aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera, obra proiektuak onartzea zinegotzi delegatuak kontratatzeke eskumena badu.
- Lansailerako onartutako aurrekontuarekin bat etorritik ekonomia kudeaketa garatzea eta kontuak ematea, bere lan esparruan sortzen diren fakturak ikus-onetsiz.
- Mota orotako diru-laguntzak eskatzea garaiz eta kontuhartzaitzaren fiskalizazioaren ondoren kontuhartzaitzako eredu normalizatuaren arabera.
- Aipatu alorrari egotzitako edo egozten zaion udal ondarea kudeatzea eta Tokiko Gobernu Batzarrari edo Osoko Udalbatzari proposatzea horretarako egoki diren erabakiak.
- Bere lan eremuaren barne sortzen diren gai arrunt eta tramitezko guztiak kudeatzea, erabakiak arrazoiean oinarrituta hartuz
- Udal aurrekontuaren aurreproiektua osatzea eta Alkateari igortzea, aurrekontua gauzatzeko Arauan ezartzen denaren arabera.
- Gobernu Batzordeak onartutako aurrekontuaren arabera egiten diren gastuen likidazioa onartzea, beti ere, Tokiko Gobernu Batzarrak berak erabakitako kontzeptuetara egokitzen bada. Kasu guztietan lansailleko Teknikariaren txostena eta udal kontuhartzaitzaren ikus-onespena jaso beharko da onartu aurretik, inprimaki normalizatuan ezartzen denaren arabera.
- Alkatearekin bildu eta harremana izatea eraginkortasun eta koordinazio printzipioak bermatzeko; era berean eta gairen baten inguruan lansail desberdinak parte hartzen dutenean, bilerak izatea haiekin.
- Eskuordetzaren bitartez harturiko erabakien berri ematea, aldian aldiro, Alkateari.